

## **ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA**

**GAIA: 11/2013**

### **ERABAKIA, JARDUERA AKADEMIKOAK EGITEARI ETA HORIENGATIK ORDAIN EKONOMIKOAK JASOTZEARI BURUZ (...) EUSKO JAURLARITZAKO ZUZENDARIAK EGINDAKO GALDERAREKIN LOTURIKOA.**

1.- 2013ko azaroaren 29ko idatziaren bidez, (...) -ko zuzendariak (...) -ko programa aurreratuan irakasle gisa parte hartzeari eta horregatik ordain ekonomikoak jasotzeari buruz interesdunak helarazitako kontsulta egin dio Etika Publikorako Batzorde honi (aurrerantzean EPB).

2.- Interesdunak (...) Saileko (...) -ko Zuzendariari bidalitako posta elektronikoa zehazten du aurtengo urtean zenbait hitzaldi eman dituela Unibertsitatean, eta uko egin diola horren truke ordain ekonomikoak jasotzeari, "uste dudalako [Etika eta Jokabide Kodean xedatutakoaren arabera] nire karguari dagokion eginkizunak betez hartu dudala parte". Aipatutako mezuan, eta kontsultari dagokion kasu zehatzari buruz, interesdunak, orobat, bere iritzia ere adierazi du: "Hitzaldiaren gaia, ezaugarriak eta iraupena (6 ordu) aintzat hartuta, eta programan zer izaerarekin parte hartu nuen parte kontuan izanda, uste dut irakasle gisa dagokidan ordaina jasotzeko aukera ematen duela kode etikoak"; hau da, interesdunak uste du ordaina jasotzeko aukera ematen duten egoerekin bat datorrela bere kasua. Hala ere, egokitzen jo du kontsulta egitea.

3.- Kontsulta horri dagokionez, ondokoa onartu du Etika Publikorako Batzordeak (aurrerantzean EPB):

### **ERABAKIA:**

#### **I.- AURREKARIAK**

1.- Etikaren eta Jokabidearen Kodea (aurrerantzean, EJK) 2013ko maiatzaren 28ko bileran onartu zuen Gobernu Kontseiluak, politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza berrezartzeko asmoz.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkizkiekeen zehazten du kodeak, horien

jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Azken xedea da zintzotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Gobernuaren irudi instituzionala zainduz, haren eraginkortasuna indartuz eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza higitzea saihestuz.

2.- EJKk oinarritzko bost balio ditu ardatz —Osootasuna, Bikaintasuna, Politika eta kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa, eta Berrikuntza—, bai eta funtsezko sei printzipio ere: Inpartzialtasuna eta objektibotasuna, Kudeaketari lotutako erantzukizuna, Gardentasuna eta gobernatze irekia, Onestasuna eta ezaxola subjektiboa, Errespetua, eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, jokabide, jarrera eta portaeren katalogo handi bat biltzen du Kodeak, eta horiek guztiek osatzen dute EPBk bere jardunean baliatu beharreko erreferentziarako parametroa, Kodera borondatez atxikitako kargu publikoek gai eta dilema etikoei buruz galdetzen diotenean.

Azken gai horri dagokionez, Kodearen 16.3 atalak lehenengo paragrafoan xedatzen du EPB izango dela "oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, Kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du".

## **II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA**

1.- Interesdunak EPBren esku-hartzea eskatu du, (...) -k antolatutako Zuzendaritza programa aurreratuan irakasle gisa parte hartzea eta horren ondorioz ordain ekonomikoa jasotzea egokia edo zuzena den ebazteko. Aipatutako esku-hartzea eskatzeko idatzian, interesdunak zehazten du bere kontsultan aipagai duen irakaskuntza-jardueraren ezaugarriak eta iraupena aintzat hartuta eta, orobat, kontuan izanda zer kargu edo izaeraren arabera gonbidatu zuten bertan parte hartzera, bere kasua bat datorrela Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) ordaina jasotzeko baimentzen dituen balizkoekin; hau da, uste du kode horrek goi-kargudunei eta parekatuei prestakuntza- eta irakaskuntza-jarduerak egiteagatik ordain ekonomikoa jasotzeko aukera ematen dien egoeretako bat dela berea. Hala ere, gai horri buruzko iritzia eskatu dio Batzorde honi.

2.- Komeni da adieraztea, batzorde honek aztergai duen gaia zehazki aztertzeari ekin aurretik, EJK-k interes-gatazkekin lotutako jokabide, jarrera eta portaera batzuk aurreikusten dituen arren, kargu publikodunen jardueretan gai horrekin lotutako dilema etikoek duten garrantzia kontuan hartuta, arlo horretan indarrean dagoen araudi juridikoa —eta, zehazkiago, kargua hartu aurretik, aldi berean edo ondoren jarduera jakin batzuk egiteari dagokiona— jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideak

berariaz erregulatzen dituen arau juridikoan; horretan, diziplina- eta zigor-erregimen bat ezartzen da, legezkotasun-printzipioari jarraituz lege-mailako testu batean erregulatzen dena.

3.-Hala, bada, ez dagokio EPB honi erabakitzea bateraezintasunik dagoen edo ez Eusko Jaurlaritzako zuzendari izatearen eta interesdunak irakaskuntza-jardunean eman nahi duen hitzaldiaren artean, gai jakin batean aditua denez gero programan parte hartzera gonbidatu baitute; aitzitik, EPB honek azter dezake jarduera hori eta, hala dagokionean, horien truke ordainsariak jasotzea bat ote datozen EJK-k oinarritzat dituen balio, printzipio, jokabide eta portaerekin. Hain zuzen ere, aurrekarien atalean azaldu den bezala, politikaren zentzu etikoa berreskuratzea baita EJKren xede nagusia, euskal herritarrek beren erakundeetan eta, zehatzago, Eusko Jaurlaritzaren zein Jaurlaritzako arduradun politikoen eguneroko lanean duten konfiantza egonkortze aldera.

4.- Horren ondorioz, interesdunaren jarduna EJKn aurreikusitako balio, printzipio, jokabide, jarrera eta portaerekin bat datorren edo ez erabakitzera mugatuko da Etika Publikorako Batzorde hau, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzari egokituko zaio erabakitzea, hala behar izanez gero, interesdunak bete nahi duen jarduera akademikoaren eta bere kargu publikoan jardutearen artean legezko bateraezintasunik dagoen edo ez, hala xedatzen baitu apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 16. artikuluan.

5.- Hau ezartzen du Kodeak 11.4 ataleko hirugarren paragrafoan Kodeari atxikitako goi-karguei buruz: "Inolaz ere ez dute onartuko ordainsaririk, diruz zein gauzaz, hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, *salbu eta ekintzak aurretiazko lanbide-prestakuntzak edo -jarduerak direla medio gauzatzen badira, eta ekintza horretan parte hartzearen xedeak eta nolakotasunak bere karguarekin inolako loturarik ez badu*".

6.- Interesdunaren idatzian arrazoizko moduan egiaztatuta geratu da, EJKn xedatutakoaren ondorioetarako -ez da EPBren egitekoa interesdunaren ibilbide profesionalaren kalitatea eta garrantzia ebaluatzea edo egiaztatzea- egin nahi duen irakaskuntza-jarduera ("[...] erakundeetan kalitatearen kudeaketarekin loturiko funtsezko gaiak" hizpide hartuta sei orduko hitzaldia ematea) "aurretik zituen kualifikazio edo jardun profesionalak" direla medio emango duela hitzaldi hori, eta kualifikazio horiek Eusko Jaurlaritzako zuzendari izendatu aurretik zituela, zalantzarik gabe. Horren adierazle dira, besteak beste, interesdunaren *curriculum* zabala, webgunean jasotakoa, eta "kalitatearen kudeaketaren gaia nire ibilbide profesionalean arlo horretan dudan esperientzia oinarritzat hartuta jorratzeko" helburua. Areago, litekeena da kudeaketaren arloan duen esperientzia profesional zabala eta bizia izatea gaur egun betetzen duen kargurako izendatua izateko arrazoi sendoenetako bat.

Nolanahi dela ere, azpimarratzekoa da interesduna aditu ezaguna dela kudeaketaren arloan, eta, beraz, aipatutako programan behin-behinean irakasle gisa parte hartzeko duen "xedeak eta izaerak", printzipioz, "ez du batere zerikusirik Eusko Jaurlaritzako zuzendari gisa betetzen

duen kargu publikoarekin". Eta ez du loturarik, hain zuzen ere, interesdunak egiaztatzen duelako alegatutako jarduera akademikoa eta horrek dakarren onarpena kronologikoki aurreragokoak direla Eusko Jaurlaritzako goi-kargu izatera iristea baino, eta hori osoki doitzen zaio aipatutako EJK-ko 11.4 "in fine" atalean ezarritako salbuespenari.

7.- Baina kasu honetan harreman material ukaezina dagoenez gero interesdunaren – aurretiazko– aditu-izaerari dagokion zientzia- eta ezaguera-arloaren eta zuzendari gisa esleituta dituen administrazio-eginkizunen artean (interesdunak bere idatzian onartu du ikastaroan emango duen hitzaldian, beste eduki batzuen artean, (...)-aren ikuspegitik kalitatearen kudeaketa zer-nolakoa den izango duela hizpide, eta hori dela, hain zuzen, bere "gaur egungo arduretako bat"), tentu handiz jardun behar da aipatutako 11.4 ataleko adierazpide bati eman behar zaion irismena eta edukia zehazteko orduan, hots, jarduera akademikoetan parte hartzeagatik ordainsariak jaso ahalko direla baldin eta "(...) ekintza horretan parte hartzearen xedeak eta nolakotasunak *bere karguarekin inolako loturarik ez badu*". Izan ere, zorrotzasunez aztertuz gero, ezin da esan karguak legez esleituta dituen funtzioekin estuki lotutako gai bat jorratzen duen ekintza akademiko batean zuzeneko partaidetza izateak "inolako loturarik ez" duela karguaren jardunarekin. Berez, kasu honetan denborazko arrazoi bati erantzun diezaioke soilik EJKren arabera goi-kargu baten jardunaren artean eta kargu horren titularrak gauzatu nahi duen jarduera akademikoaren artean egon behar duen lotura gabeziak; eta ez, inolaz ere, izatezko arrazoi bati. Horrela, jarduera akademikoak ez luke "inolako loturarik" izango karguaren jardunarekin, ez, ordea, interesdunak esleituta dituen eginkizunetik izatezko harremanik ez duelako, baizik eta izendapena gertatu baino lehen hasi, garatu eta sendotu zelako jarduera akademikoa.

8.- Hala eta guztiz ere, EJK-k ez du irizpide kronologikoa edo denborazkoa soilik hartuko aintzat. Izan ere, kargu publiko batek bere gain hartutako karguari hasiera batean dagozkion edo legozkion eginkizunetan jarduteagatik legez ezarriez gainera beste onura edo ordainsaririk ez lortzea eragotzi nahi du, beti ere, Kode Etikoko 11.4 atalak.

Kargu publikodunen eginkizunekin zerikusia duten gaiei buruzko jarduera akademikoetan parte hartzea, berez, onuragarria da kargu horiek kide diren erakundearentzat eta, hain zuzen ere, administrazio publikoek gisa horretako jokabideak sustatu beharko lituzkete, beren gizarte-presentzia sendotzen dutelako eta gauzatzen duten lana herritarrei jakinarazten lagun dezaketelako. Laudagarria da, orobat, ahalegina egitea gizarteak ikus dezan Eusko Jaurlaritzako goi-zuzendaritzan parte hartzen duten pertsonak prestakuntza handikoak direla, bai eta adituak ere, beren ardura publikoarekin lotuta kudeatu behar dituzten gaiekin lotutako arloetan. Baina, hain zuzen ere, erakundearen irudi sozialean duen eragin positibo hori aintzat hartuta, erakundearen eskumen funtzionaleko esparrukoak diren gaiei buruzko foro akademikoetan goi-karguen presentzia eta parte hartzea, beren eginkizunari dagokion betebehartzat hartu beharko litzateke. EJKn xedatutakoaren arabera, hauxe da salbuespena:

"goi-kargudunak aurretik zuen prestakuntza edo jarduera profesionalaren araberakoa izatea jarduera", eta bertan parte hartzeko gonbitea ez izatea betetzen duen karguaren ondorio.

Horrenbestez, argitu beharreko auzia ez da hainbeste interesdunak jarduera akademikoetan parte hartzea etikoki bidezkoa ote den, hasiera batean txalogarriak eta gomendagarriak baitira jarduera horiek, baizik eta erabakitzea ea jarduera horien truke karguari esleitutako ordainsariak ez diren beste batzuk jasotzeak kargudunaren osotasun etikoa nolabait kaltetzen ote duen. Dilema hori ez litzateke azaleratuko baldin eta karguaren aurretiazko espezializazioak ez balu inolako harreman materialik edo zientifikorik izango kargu horri esleitutako funtzioekin; baina garrantzi berezia hartzen du kasu honen gisakoetan, neurri handi batean baitatoz bat interesdunaren aurretiazko espezializazioa eta karguaren funtzioak.

9.- EPBren iritziz, "inolako loturarik ez" aipamenaren interpretazio arrazoizkoena aurrez adierazitako salbuespenaren testuinguruan ulertu behar da: interesdunak irakasle gisa jardutea edo prestakuntza-programan parte hartzea justifikatzen duen arrazoi nagusia bere aurretiazko ibilbide profesionala da eta ibilbide horretan eskuratutako meritua eta onarpena; aldiz, gaur egun kargu publiko bat betetzea eta kargu horren eginkizunak, hein batean, aurrez egiaztatutako kualifikazioarekin bat etortzea hainbesteko garrantzirik ez duten datu objektiboak dira, eta, beraz, horrek ez du eragozpenik sortu behar edo galarazi behar jarduera akademiko horietan osoki parte hartzea.

11.4 atala sistematikoki hartu behar da aintzat jokabide "nagusi"ari buruzko esakunearen barruan; hona hemen azken hori: "Onestasanari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak". Arauak zuzentasunaren balioa eta onestasanaren printzipioa babestu nahi ditu, bai eta, neurri batean, eredugarritasunaren printzipioa ere.

Horrenbestez, EPBren iritzia da aipatutako balio eta printzipio horiek eta EJK-k galarazitako jokabideak ez direla kaltetzen interesdunak nahi duen irakaskuntza-jarduera egiteagatik eta, horren truke, programa emango duten irakasleentzat modu orokorrean ezarritako "diru edo gauzako ordainsariak" jaso ahal izateagatik.

Horren guztiaren ondorioz, EPBk hartzen du honako

#### **ERABAKIA:**

**(...) jaunak ez du urratzen EJK, (...) -ko (...) programan irakasle gisa parte hartzeagatik dirutan edo gauzatan dagokion ordainsaria onartzen badu; hau da, "(...) erakundeetan kalitatearen**

kudeaketarekin loturiko funtsezko gaiak" hizpide hartuta sei orduko hitzaldia emateagatik dagokion ordaina jasotzen badu.



**Etika Publikorako Batzordeko burua**

**Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 17a**